

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

**Diputatu Nagusiaren 546/2019 Foru Dekretua, abenduaren 30koa. Onespena ematea emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko Arabako udalek eta kuadrillek sustatutako programak edo jarduerak garatzeko 2020ko ekitaldiko dirulaguntza deialdiari**

Dirulaguntzen deialdi hau Arabako Foru Aldundiak emakume eta gizon arabarren benetako berdintasunaren alde egindako apustu politikoaren barruan kokatuta dago. Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, ezarritako printzipioak oinarri hartuz, foru erakundeei dagokie, besteak beste, "Sustapen neurriak ezartzea, udalek eta gainerako toki entitateek bitarteko materialak, ekonomikoak eta giza baliabideenak izan ditzaten, emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesteko diseinatutako programak eta jarduerak garatu ahal izateko"; "Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek lurralde eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute" eta "Bakoitzaren lurralde eremuan sexuaren zioz gertatzen diren bereizkeria egoerak antzematea, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak hartzea".

Azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eta lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanenak, azken horiei ematen die berdintasun arloa burutzeko eskumena, 7 c) artikulua indarrez.

Arabako Foru Aldundiaren 2015-2019 agintaldiko plan estrategikoaren 10. ardatzean aldundiaren esku hartzeko estrategia azaltzen da eta agerian jartzen da, aukera berdintasunerako politiken arloan, ardatz horretako hirugarren helburu estrategikoaren bitartez (emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea).

Arabako emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2016-2020 IV. Foru Plana programa esparru bat eskaintzen du Arabako Foru Aldundiaren berdintasunaren arloko politika publikoak garatzeko; beraz, gobernuak epe horretan arloan duen konpromisoa erakusten du.

IV. Plan horren bidez, aldundiak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin duen konpromisoa baieztatzen du eta azpimarratzen du foru administrazio guztia gizarte bidezkoago baterantz, non berdintasunaren balioa gizartean txertatuta dagoen eta garrantzia aitortuta daukan, joateko bidean dagoela.

Laugarren planaren erronka nagusietako bat da emakumeen banakako eta taldeko jabekuntza lortzea LAIA Arabako Emakumeen Jabekuntzarako eta Berdintasunerako Eskolaren bitartez, eta erakunde publikoen agintaritzan genero zeharkakotasuna lantzea, alegia, genero ikuspegia poliki-poliki txertatzea, politiken kudeaketan eta lan esparruetan genero ikuspegia sustatuz.

Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak 2019ko abenduaren 2an egindako proposamena aztertu da.

Horregatik, eta Diputatu Nagusi gisa dagozkidan ahalmenez baliatuz, honakoa,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Udalei eta kuadrillei zuzendutako dirulaguntzen deialdia onartzea. Laguntzen helburua da, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko, udalek eta kuadrillek 2020ko ekitaldian sustatutako programak edota jarduerak garatzea. Horien kopia doa honekin baterako eranskinean.

Bigarrena. Deialdi hori Gizarte Zerbitzuen Saileko Gizarte Sustapenaren Zuzendaritzaren norgehiagoka araubideko dirulaguntzak arautzeko oinarri orokorren (Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 22ko 30/2012 Foru Dekretua, 2012ko maiatzaren 30eko 62. zk.ko ALHAOn argitaratua) eta Foru Dekretu honetako eranskinean xedatutakoaren arabera arautuko da.

Hirugarrena: Foru dekretu honetan araututako dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2020rako aurrekontu proiektuaren 02.5.01 92.00 4.6.2.90.01 aurrekontu partidatik (140.000,00 euroko kreditua izatea kalkulatzeko) ordainduko dira. Beraz, dirulaguntzak emateko, ezinbestekoa izango da kreditu egokia eta nahikoa egotea dirulaguntza ebatzen den unean.

Arabako udalek eta kuadrillek eta Trebiñuko Enklabeak sustatutako emakume eta gizonen berdintasuna lortzeko programa eta jarduerak garatzeko 2020ko dirulaguntzen deialdiari esleitutako zenbatekoaren, gehienez, ehuneko 10ean handitu ahal izango da zenbateko hori.

Laugarrena. Organo eskudunak bidezko den ebazpena hartuko du, organo instruktoreak proposatuta, sei hilabeteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, erakunde interesdunek ezetsitzat jo ahal izango dute eskaera.

Bosgarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko diputatu nagusiari, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakioko bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Seigarrena. Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendariari ahalmena ematea foru dekretu hau garatzeko, interpretatzeko eta betearazteko ezinbesteko diren egintzak eta xedapenak emateko.

Zazpigarrena. Laguntza eman ala ukatzeko ebazpena ALHAOn argitaratuko da, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 45. artikuluan xedatutako moduetakoren batean. Hori izango da jakinarazteko bidea 2020an emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko sustatzen dituzten programak edo jarduerak garatzeko dirulaguntzak eskatu dituzten erakundeei.

Zortzigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduaren 30a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Berdintasun eta Giza Eskubideen zuzendaria*

**NEREA MELGOSA VEGA**

**ERANSKINA****ARABAKO UDALEK ETA KUADRILLEK 2020KO EKITALDIAN EMAKUMEEN  
ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA LORTZEKO SUSTATZEN DITUZTEN  
PROGRAMAK EDOTA JARDUERAK GARATZEKO DIRULAGUNTZAK DEIALDIA****1. artikulua. Gaia eta helburua**

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak ematea, lehiaketa bidez, 2020ko ekitaldian Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko Konderrian emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko jarduerak eta programak udal eta kuadrilla eremuetan bultzatzeko helburuz.

**2. artikulua. Aurrekontua izatea, dirulaguntzen zenbatekoa eta muga**

Gastua Arabako Foru Aldundiaren 2020rako aurrekontu proiektuaren 02.5.01 92.00. 4.6.2.90.01 "Berdintasuneko jarduera publikoak sustatzea" aurrekontu partidak (140.000,00 euroko kreditua izatea kalkulatzen da) babesten du. Beraz, dirulaguntzak emateko, ezinbestekoa izango da kreditu egokia eta nahikoa egotea dirulaguntza ebatzen den unean.

Deialdi honetan, diruz lagundu daitekeen aurrekontu osoa eragiketa hau egitetik lortzen den emaitza izango da: proiektuaren aurrekontu osoa ken deialdi honen arabera diruz lagundu ezin diren gastuak.

Arabako Foru Aldundiko Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak diruz lagundu daitekeen guztirako aurrekontuaren zenbatekoaren ehuneko 90 finantzatu du gehienez ere, eta erakunde eskatzaileak gainerako ehuneko 10a jarriko duela bermatu behar du.

Erakunde eskatzaileak ekarpen propioa egin dezake diru ekarpenen bidez.

Emandako dirulaguntzak ezingo du inola ere gainditu eskatutako zenbatekoa, ezta proiekturako diruz lagundu daitekeen guztirako aurrekontuaren ehuneko 90 ere. Erakunde eskatzaile bakoitzak proiektu bakarra aurkeztu dezake.

6.000 biztanletik beherako erakundeek jaso dezaketen gehieneko diru kopurua zuzenki proportzionala izango da biztanle kopuruarekin, betiere tarte hauei jarraituz:

\* 500 biztanletik beherako erakundeak: 5.000 euro.

\* 501-1.000 biztanleko erakundeak: 8.000 euro.

\* 1.001-6.000 biztanleko erakundeak: 9.000 euro.

6.000 bizilagun baino gehiago dituzten udalerrietarako, dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 8.000,00 euro izango da.

Kuadrilletarako, dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 12.000,00 euro izango da.

Ez dute dirulaguntzarik jasoko, deialdi honetan ezarritakoaren arabera berraztertuta, erakundeko 800,00 euroko dirulaguntzara heltzen ez diren eskaerak.

Diruz lagundu daitekeen aurrekontua doitu behar bada, doikuntza hori egin ahal izateko beste dirulaguntzen edota baliabide publiko zein pribatuen bidez proiektuaren kostua elkarrekin finantzatzea eskatu duen erakundeak lehenbailehen jakinarazi beharko dizkio horiei buruzko ebazpenak Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari. Jakinarazpen horrekin batera bidali behar ditu dirulaguntza eman edo ukatu izana egiaztatzen duten agiriak.

Arabako Foru Aldundiak edo beste administrazio batzuek zein nazioko edo nazioarteko beste erakunde publiko edo pribatuek emandako beste dirulaguntza batzuk edo bestelako diru sarrerak jasotzea onartu ahal izango du deialdiak, baldin eta dirulaguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, ez bada diruz lagundu daitekeen aurrekontu osoa baino gehiago.

### 3. artikulua. Erakunde onuradunak eta kanpoan geratuko direnak

1. Dirulaguntza hauen erakunde onuradun izan daitezke Arabako Lurralde Historikoko udal eta kuadrillak (Gasteizko Udala eta horren barruko kuadrilla izan ezik) eta Trebiñuko Konderrria, baldin eta horien jarduerak deialdiaren xedearekin bat egiten badute.

2. Maiatzaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 30/2012 Foru Dekretuaren bidez, Gizarte Zerbitzuen Saileko Gizarte Sustapenaren Zuzendaritzak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartu ziren. Oinarri horien 4. artikuluan kanpo utzitako erakundeez gain, dirulaguntza hauetatik kanpo geratuko dira laguntza lerro honetako aurreko deialdietan jasotako dirulaguntzen ondoriozko betebeharrak guztiak bete ez dituzten erakunde publikoak.

### 4. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen programa eta gastuak

Maiatzaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 30/2012 Foru Dekretuaren arabera, eta Eusko Legebiltzarrak onartutako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, 2.3 eta 3.4 artikuluetan xedatutakoaren arabera, erakunde onuradunek genero ikuspegia txertatu behar dute diruz lagundu daitezkeen proiektuetan.

A) Diruz lagundu ahal izango dira gobernu onaren eremuan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Planaren hiru ardatzetan (emakumeen ahalgintza, emakumeen aurkako indarkeriak eta beste indarkeria matxista batzuk eta zaintzen kultura eta antolaketa berri bat) kokatzen diren jarduerak eta/edo programak, hauetara bideratutako proiektuak:

1. Udalerrri eta kuadrilletan genero ikuspegia zeharkako bihurtzea bultzatu, honako hauen bitartez: genero ikuspegia txertatzeko egiturak egokitzea eta sortzea, langileak berdintasunaren arloan trebatzea, hizkuntza eta irudi inklusiboak sartzeko, arloko prozedura eta politiketan genero ikuspegia sartzeko, berdintasunaren eremuko ordenantzak gertatzea, estatistikak eta ikerlanak egokitzea...

2. Emakumeen autonomia eta ahalgintza garatzearen eta generoaz jabetzearen alde egitea eta balioen aldaketa sustatzea, rol eta estereotipo sexistak eta aniztasunari eta generoaren nortasunei buruzko aurreiritziak kenduta.

3. Ardura partekatua eta zaintzaren etika sustatzen dituzten jarduerak bultzatzea, bai eta enpresetako kultura ardura partekaturantz aldatzeko jarduerak ere.

4. Indarkeriarik gabeko jokabide ereduaren garapena sustatzea, hain agerikoak ez diren beste indarkeria mota batzuk (indarkeria mediatikoa, sinbolikoa, etab.) lantzea, eta indarrezko jokareen prebentzioa eta detekzio goiztiarra, sentsibilizazioa eta informazioa areagotzea, batez ere, gazteen artean.

LAIA Eskolak, hau da Arabako Emakumeen Jabekuntzarako eta Berdintasunerako Eskolak, irekiak diren eta diruz lagunduak diren jarduerak jorratuko ditu urteko programan.

B) Diruz lagundu ezin daitezkeen programak:

Ondorengo hauek ez dira diruz lagunduko:

1. Gizarte Zerbitzuen Saileko Gizarte Sustapenaren Zuzendaritzak lehiaketa bidez ematen dituen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrek 16. artikuluan xedatutakoaren arabera, proiektuaren justifikazioan, helburuetan eta ekintzetan genero ikuspegia (II. eranskineko 1., 2.1. eta 2.2. puntuak) txertatzen ez duten proiektuak eta erakundearen berdintasun programarekin lotuta ez daudenak.

2. Aurrekontuan inprimakiko (II. eranskina) 3. atala ondo xehatuta aurkeztu ez edota irizpide honetan punturik lortu ez duten proiektuak.

3. Zerbitzuak sortzeari edota mantentzeari lotutako jarduerak.

C) Diruz lagundu daitezkeen gastuak:

1. Diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari inolako zalantzarik gabe erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak eta 2020ko ekitaldian egiten direnak, hau da, 2020ko urtarrilaren 1etik abenduaren 7ra.

2. Dirulaguntza lortzeko eta justifikatzeko, diruz lagundu daitezke gastu hauek:

a) Material suntsigarriak eragiten dituen gastuak.

b) Bidaiek eta egonaldiak eragiten dituzten gastuak:

Joan-etorrietako gastuei dagokienez, ahal dela, garraio publikoa erabiliko da. Garraio pribatua erabili behar bada, kilometro bakoitzeko 0,29 euroko muga ezarri da.

c) Kontratazio gastuak (profesionalak eta bestelakoak –enpresak, elkarteak–):

– Enpresak, elkarteak edo profesionalak kontratatuz gero, azalpen memoria aurkeztu beharko dute, berdintasunaren inguruan egindako lanak jasoz eta zer enpresa edo erakunderekin lan egin duten eta hura egindako aldiak adieraziz.

Lantegiak eta ikastaroak egiteko kontratazioen gastuetan, bai eta bakarrizketa, mintegi, hitzaldi edota antzeko beste ekimen batzuk egiteko kontratazioen gastuetan ere, dirulaguntzarako gehienez 120,00 euro onartuko dira orduko (zergak eta gizarte segurantzaren barne): Gehieneko zenbateko horretan jarduerako joan-etorriak eta jardueraren prestakuntza, burutzapena, koordinazioa eta ebaluazioa sartuko dira. Jarduerak ezin du iraun 16 ordu baino gehiago.

Ikastaroak, lantegiak edo antzekoak emango dituzten langileek egiaztatu egin beharko dute, gutxienez, 50 orduko prestakuntza edo urtebeteko esperientzia dutela emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan. Prestakuntza hori egiaztatzen ez bada, entitateak justifikatu beharko du kontratazio hori egin beharra, baldintza horiek betetzen dituen profesionalik ez dagoela-eta.

Behin baino sarriagotan egiten bada lantegi zein ikastaro berdina proiektua gauzatu beharreko aldiak, jarduerak irauten duen ordu bakoitzeko gehienez ere diruz lagundu daitezkeena ehuneko 25 jaitsiko da, lehenengo jardueran jada aplikatutakoarekin erkatuta.

Organo kudeatzaileak aurrean azaldutako dirulaguntza mugak betetzen direnez egiaztatu ahal izan ditzan, erakunde eskatzaileak aurkezten duen proiektuan jarduerak zenbat ordu iraungo duen zehaztu beharko du, xehatuta, bai eta orduko zenbat diru eskatzen duen ere (zergak barne).

Halaber, antzerki eta musika ekitaldien eta antzekoen kontratazio gastuak direla eta, dirulaguntza 900,00 eurokoa izango da gehienez (zergak barne).

d) Publizitatearen gastuak.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilerari buruz ezarritakoa betetzeak erakunde onuradunei eragiten dizkien gastuak.

Salbuespenez, atal honetan azaldu diren diruz lagundu daitezkeen mugak gainditu egin ahalko dira, jarduerak bereziak badira ez bakarrik duten izaeragatik, baita metodologiagatik, berrikuntzagatik eta/edo espezializazioagatik ere. Salbuespentzat jotzeko eta Balorazio Batzordeak hala dela onartzeko, hala badagokio, erakunde eskatzaileak salbuespen izaera hori behar bezala justifikatu beharko du II. eranskinean (proiektuaren inprimakia).

f) Martxoaren 8ko ospakizunetarako material gastuak eta eskualde topaketa gastuak (plakak, poltsak, eranskailuak...), gehienez ere, 400,00 eurorekin lagunduko dira.

3. Honako hauek ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuen artean sartuko: soldatapeko langileen gastuak, gastu orokorrak edo zeharkakoak, gai ez suntsikorrak, otorduak, opariak eta antzekoak.

Ez dira diruz laguntzeko moduko gastua aktibo finkoan egindako inbertsioak.

4. Proiektu baten barruan Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren iritziz deialdiaren xedea behar bezainbat aldeztan ez duen jarduketarik egonez gero, dirulaguntzaren kalkulutik baztertu daiteke.

5. Dirulaguntzarako onartzen den aurrekontuaren ehuneko 100 azpikontratatu daiteke, baldin eta urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntza eta transferentzienak, 27. artikuluan ezartzen dituen baldintzak betetzen badira.

#### **5. artikulua. Eskabideak aurkeztea**

1. Eskabideak eta deialdi honen seigarren artikuluan zehazten diren agiriak aurkezteko hogeita hamar egutegi-egun egongo dira, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean zenbatzen hasita.

Eskabideen jasotzailea Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza izango da. Eskabideen ereduak deialdi honen I eta II. eranskinetan jasoko dira, baita Arabako Foru Aldundiaren web orrian ([www.araba.eus](http://www.araba.eus)) ere.

Dirulaguntzen eskaerak Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean (Probintzia plaza, 5, Gasteiz) aurkeztu behar dira, Arabako Foru Aldundiaren beste Erregistroetan eta itundutako udalen Erregistro Orokorretan.

Hori guztia, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

2. Eskabideak udalek, banan-banan nahiz elkaturik, edo kuadrillek berek egin ahal izango dituzte. Eskabidea udal batek baino gehiagok aurkezten badute elkaturik, hartan zehaztu beharko da zein dirulaguntza ehuneko dagokion udal bakoitzari edo, hala dagokionean, ordezkaritza eta dirulaguntzaren onuradun izaeratik eratorritako eskubideak eta betebeharrak bere gain hartzen dituen erakundeari.

Horrez gain, proiektuan parte hartu duen udal bakoitzeko udalbatzaren erabakia aurkeztu beharko da. Erabaki hori aplikagarria izango da hainbat udalek batera aurkeztutako proiektuetan eta kuadrillek aurkeztutakoetan.

#### **6. artikulua. Agiriak**

Eskabidearekin batera ondoko agiriak aurkeztuko dira:

a) Eskabidearen inprimakia, I. eranskinaren arabera.

b) Proiektuaren inprimakia, II. eranskinaren arabera.

c) Baldin eta beste dirulaguntza publiko eta/edo pribaturen eskatu bada, haien egiaztagiriak aurkeztu behar dira zenbat diru eskatu den adieraziz.

d) Erakundearen organo eskudunaren erabakiaren ziurtagiria, idazkariak emana, gastu eskaera eta finantzaketa baimentzen duena, eskaerak aurkezteko epea bukatu aurretik.

Hainbat udalek batera aurkeztutako edo kuadrillek aurkeztutako eskaerei dagokienez, proiektuan parte hartu duten udal guzti-guztiek erantsi behar dute ziurtagiri hori.

e) Egiaztagiria, udalerrian edo udalerrietan erroldatutako pertsona kopuruarena, 2020ko urtarrilaren 1ekoa. Egiaztagiri honetan pertsonen nazionalitatea eta sexua agertu behar da.

f) Hala badagokio, kontratazio gastuen aurreikuspenaren azalpen idazkia (eredua II. eranskinetan).

g) Enpresak, elkarteak edo profesionalak kontratatuz gero, azalpen memoria aurkeztu beharko dute, berdintasunaren inguruan egindako lanak jasoz eta zer enpresa edo erakunderekin lan egin duten eta hura egindako aldiak adieraziz.

h) Hala badagokio, ikastaroak, lantegiak edo antzekoak emango dituzten langileek egiaz-tatu egin beharko dute, gutxienez, 50 orduko prestakuntza edo urtebeteko esperientzia dutela emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan.

i) Hala badagokio, joan-etorrien gastuen aurreikuspenaren azalpen idazkia (eredua II. erans-kinean).

Aurkeztutako eskaera egoki baloratu eta ebazteko, Arabako Foru Aldundiko Berdintasuna-ren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak agiri eta informazio gehiago eska diezaieke erakunde eskatzaileei.

### 7. artikulua. Izapideak eta Balorazio Batzordea

Arabako Foru Aldundiko Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzako Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun zerbitzuak izango du prozedura izapidetzeko eskumena.

Eskaerak balorazio batzorde batek aztertuko ditu. Haren kideak izango dira Berdintasunaren eta Giza Eskubideen zuzendaria, edo hark eskuordetutako pertsona, Berdintasun, Lankidetzeta eta Kul-turartekotasun Zerbitzuaren burua, Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari atxikitako berdintasun arloko bi teknikari eta Gizarte Sustapenaren Zuzendaritzako administrazio orokorreko teknikari bat, idazkari lanak egingo dituen eta ahotsa bai, baina botorik izango ez duena.

### 8. artikulua. Deialdiaren ebazpena

1. Organo eskumendunak eman beharreko ebazpena emango du, organo instruktoreak proposatuta, sei hilabeteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Gehienezko epea igarota esanbidezko ebazpenik ez bada egon, eskaerari ezezkoa eman zaiola ulertuko du erakunde interesdunak.

2. Dirulaguntzak emateko ebazpenean oinarri arautzaileak eta deialdiaren baldintzak betetzen direla aipatuko da arrazoiaren azalpenean; gainera ondoko datuak argitu behar ditu:

a) Zein diren dirulaguntza jasoko duten erakunde onuradunak (zerrendan bakoitzaren zen-batekoa zehaztuko da); dirulaguntza jaso ez dutenei dagokienez, batetik azalduko da zeintzuen eskaera ezetsi den eta bestetik zeintzuek ez duten jasoko dirua uko egin diotelako edo proiektua ezin burutu dutelako.

b) Lagundutako proiektuaren izena eta lagundu daitekeen aurrekontua.

3. Kontuan izanda urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 45. artikuluan xedatutakoa, dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpena ALHAOn argitaratuko da, eta jakinarazpen ondorioak izango ditu horrek.

4. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko diputatu nagusiari, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien juris-dikzioan aurka egin dakioko bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

### 9. artikulua. Eskabideak baloratzeko irizpideak eta haien haztapena

Ondoko irizpideak aplikatuko dira:

	GEHIENKO PUNTAUZIOA
1. Proiektuaren justifikazioa Testuinguruaren azalpen argi eta laburra: emakumeen eta gizonen egoera guztien analisi bereizita eta proiektuaren eremuan hark emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko egindako ekarpena. Proiektuaren kontestualizazioa entitatearen berdintasun programan.	6
2. Proiektuaren kalitate teknika	20
2.1. Proiektuaren justifikazioaren, duen helburuaren, metodologiaren, planifikatutako jardueren eta jarraipenaren eta ebaluazioaren arteko lotura. Proiektuaren koherentzia	6
2.2. Jardueren zehaztasun, argitasun, xehetasun eta plangintza maila	6



	GEHIENAKO PUNTUAZIOA
2.3. Proiektuaren interesa. Proiektua helburu orokorreki eta diruz lagundu daitezkeen programei zein mailatan egokitzen zaien. Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak proiektuari interes bereziko iriztea.	5
2.4. Proiektuaren berrikuntza maila. Metodologiari, baliabide edo materialei, ekintzei, hedapenari edo berrizaitzat jo daitezkeen beste edozeini lotutako elementu berrizaitzaileak izatea	3
3. Proiektuaren aurrekontua Aurrekontua proiektuari egokituta egotea.	4
4. Proiektuaren eragina	10
4.1. Hartzaileen ezaugarriak, eta gerturatzeko eta hedatzeko prozedura	3
4.2. Proiektua zenbait udalek batera edo kuadrilla batek sustatu duten -azken kasuan, jarduerak udal bat baino gehiagotan egin beharko da	5
4.3. Genero identitate ez-bitarrak ikusgai egiteko helburua duten programa eta ekintzarik jasotzen bada proiektuan	2
<b>GUZTIRA</b>	<b>40</b>

Proiektuak dirulaguntza jaso ahal izateko lor daitezkeen gehieneko puntuazioaren balioaren ehuneko 50 lortu beharko du gutxienez.

Irizpide bakoitzean lortutako puntuak batu egingo dira eta dirulaguntza eman aurretik, aurkeztutako eta onartutako eskaerak alderatuko dira, horien arteko hurrenkera bat ezartze aldera. Hurrenkera hori puntuen arabera izango da eta dirulaguntzak hurrenkera horren arabera esleituko dira, puntu gehien dituen eskaeratik hasi eta puntu gutxi dituen eskaerara, aurrekontua bukatu arte.

Eskuragarri dagoen aurrekontua agortzen duten puntuazio berdineko azken tartean dauden eskaerei dagozkien dirulaguntzen zenbatekoak honela kalkulatu dira: eskuragarri dagoen gerakina hainbanatuz, diruz lagundu daitezkeen proiektu edo jarduera bakoitzaren dirulaguntza jaso dezakeen aurrekontuaren arabera.

#### **10. artikulua. Gastuak justifikatzea. Epealdi eta erakunde onuradunek aurkeztu beharreko agiriak**

Proiektuaren gastuen, hau da, diruz lagundu daitezkeen aurrekontu osoaren, azken justifikazioa egiteko epea 2020ko abenduaren 15ean amaituko da.

Salbuespenez, eta aurkezturiko amaierako justifikazioan ez bada egiaztatu egindako gastuen ordainketa dirulaguntzaren ehuneko 20koa edo gutxiagokoa izan dela, ordainketa haien egiaztagiria dirulaguntza jaso eta hilabeteko epean aurkeztu beharko dira.

Dirulaguntzak jasotzen dituzten erakundeek, justifikazio agiri horiek aurkeztu beharko dituzte Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean (Probintzia plaza 5, Vitoria-Gasteiz), aldundiaren beste erregistro batzuetan edo hitzartutako udaletako erregistro orokorretan.

Hori guztia, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 6. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

Dirulaguntzak jasotzen dituzten erakundeek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

1. Dirulaguntza jaso duen proiektuaren burutzapen gradua justifikatzen duen jarduketa memoria. Justifikazio inprimakia oso-osorik bete behar da nahitaez, honekin batera doan III. eranskinaren arabera.

2. Proiektuaren gastuak eta sarrerak justifikatzen dituen memoria ekonomikoa. Justifikazio inprimakia oso-osorik bete behar da nahitaez, honekin batera doan III. eranskinaren arabera.

Memoria horrekin batera fakturak eta proba gisa antzeko balioa duten bestelako agiriak aurkeztu behar dira, eta horiei dagozkien ordainagiria ere bai.

Dirulaguntza jaso duen proiektuak beste finantzaketa iturriren bat eduki badu, aurkezten diren fakturak eta gainerako agiriak zigilu batez markatuko dira Berdintasun, Lankidetzeta eta



Kulturartekotasun Zerbitzuan dirulaguntza jaso duen proiektuaren justifikaziorako egozten den zenbatekoa adierazteko.

Aurkeztutako dokumentazio guztiak jatorrizkoa izan behar du edo, bestela, fotokopia konpultsatua aurkeztu behar da, eta guztira, diruz lagun daitekeen aurrekontuaren zenbatekoaren berdina edo gehiagokoa izan beharko du.

Faktura elektronikoak aurkeztuz gero, Factura-e motako estandarretara egokitu beharko da haien formatua. Sinadura elektronikoa duen beste edozein agiri aurkeztekotan, konfiantzazko zerbitzu elektronikoen emaile kualifikatuen konfiantzazko zerrendan jasotako ziurtagiriak onartuko dira (<http://sede.minetur.gob.es/Prestadores>).

Diruz lagundu daitekeen aurrekontuan profesionalen gastuak jaso badira, gastuen frogagiri gisa aurkeztutako fakturretan pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kontura atxikitako zenbatekoak sartu direla frogatu beharko da.

Justifikazio hau espresuki erakunde onuradunak III. eranskinaren barruan dauden ondoko agiri hauek izenpetuz egingo da: adierazi diren atxikipenen sarrera eginda dagoelako aitortpena, eta Arabako Foru Aldundiari Foru Ogasunean dauden datuekin egokitzat jotzen dituen egiaztapenak egiteko baimena ematea.

Ez dira onartuko ondoko datuak argi eta garbi azaltzen ez dituzten fakturak ez antzeko agiriak:

- Eman duen pertsona edo erakundea: izena edo sozietatearen izena eta NAN edo IFZ.
- Hartu duen pertsona edo erakundea: izena edo sozietatearen izena eta NAN edo IFZ.
- Gastuaren xedea.
- Data.
- Fakturaren zenbakia.

Fakturak ordaindu direla frogatzeko agiri hauek onartuko dira:

– Bankuko jatorrizko ziurtagiria. Bertan ageriko dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren erakunde onuraduna. Ziurtagiri hori izenpetuta aurkeztuko da edota bankuaren zigilua duela.

– Faktura luzatu duen erakundeak sinatutako edo/eta zigilatutako ziurtagiria, jatorrizkoa. Bertan fakturaren zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data ageriko dira.

– Posta arruntez jasotako jatorrizko banku laburpenak.

– Kontu korronteen libreten kopia erkatua, mugimenduak ageri dituenak.

– Bankuak posta elektronikoaren bidez bidalitako laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigiluarekin.

– Jatorrizko erosketa txartelak, ordaindutakoan eskuratzen diren horietakoak (merkataritza gune eta autobideetakoak, bidaiak txartelak eta abar), edo jatorrizko fakturak, enpresa emaileak ordainduta daudela adierazteko jarritako zigiluarekin.

– Kontabilitateko P agiriak, dirulaguntza jaso duen erakunde publikoaren zigilu eta guzti.

Ez da onartuko eragiketak esku dirutan ordaintzea 2020ko ekitaldirako indarrean den araudian ezartzen den zenbatekoan edo hortik gorakoan, edo horiek atzerriko dirutan duten kontrabaloan.

Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

3. Hala badagokio, erakundearen legezko ordezkariak sinatutako ziurtagiria, kontratazio gastuak azaltzen dituen eredu III. eranskinean).

4. Profesionalen edo enpresa/elkartearen kontratazioan aldaketarik egiten bada eskabidean jarritakotik, entitatearen legezko ordezkariak izenpetutako ziurtagiria, azaltzen dituen entitatearen edo langileen jardunbidea eta pertsonak berdintasun arloan duten prestakuntza.

5. Hala badagokio, joan-etorrien gastuen ziurtagiria, legezko ordezkariak sinatuta, proiektuaren ondorioz garraio publikoan edota pribatuan egindako gastuak azaltzen dituen (eredua III. eranskinean).

6. Proiektuak beste finantza iturriren bat badauka (funts publikoak zein pribatuak), funts horiek (laguntzak, dirulaguntzak...) eman edo ukatu izana frogatzen duten agiriak.

7. Diruz lagundutako jarduera justifikatzeko dokumentazio gehigarria (txostenak eta memoria zabalagoak, argitalpenak, publizitatea, argazkiak eta abar).

8. Gizarte Zerbitzuen Saileko Gizarte Sustapenaren Zuzendaritzak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorren 9.5. artikuluan ezarritakoa frogatzeko agiriak, bidezkoak badira.

Diruz lagundu daitekeen aurrekontuari hasieran onartu zaion muga oinarri hartuta, aldaketak onartu ahalko dira diruz lagundu daitezkeen kontzeptu eta zenbatekoetan, nahiz eta diruz lagundu daitekeen kontzepturen bat egin gabe gelditu izan. Desbideratze horiek Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzuaren oniritzia izan beharko dute, salbu eta garrantzizko aldaketak gertatzen direnetan, orduan Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren oniritzia izan beharko dute.


#### **11. artikulua. Dirulaguntzak ordaintzea**

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da. Lehenengo zatia, dirulaguntzaren ehuneko 80, dirulaguntza emateko datatik aurrera ordainduko da aurrerakin gisa, eta bigarren zatia, gainerrako ehuneko 20a, dirulaguntzaren justifikazioa aurkeztu ondoren.

Salbuespenez, bigarren ordainketari dagokionez, eta aurkezturiko amaierako justifikazioan ez bada egiaztatu egindako gastuen ordainketa dirulaguntzaren ehuneko 20koa edo gutxiagokoa izan dela, justifikatu beharreko aurrerakin gisa egingo da ordainketa, eta ordainketa haien egiaztagiriak dirulaguntza jaso eta hilabeteko epean aurkeztu beharko dira.

#### **12. artikulua. Publizitatea**

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava</p> <p>www.araba.eus</p>	<b>I. ERANSKINA</b> <b>Arabako udal eta kuadrillei eta Trebiñuko Konderriari zuzendutako dirulaguntzak, emakume eta gizonen arteko berdintasuna erdiestera bideratutako programak edota jarduerak garatzeko 2020an. Eskaera orria</b>	9207
	ANEXO I Formulario de solicitud de subvención dirigida a Ayuntamientos, Cuadrillas de Álava y Condado de Treviño para el desarrollo de programas y/o actividades destinadas a la consecución de la igualdad de mujeres y hombres 2020	

Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzua

Servicio de Igualdad, Cooperación e Interculturalidad

Eskaera zk. ■ N° Solicitud

Eskaera data ■ Fecha Solicitud

(Administrazioak betetzeko ■ A cumplimentar por la Administración)

**ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE <sup>(1)</sup>**

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo

 IKZ CIF     NAN DNI     AIZ NIE     Besteren bat Otro

Identifikazio zk. ■ N° identificativo

Sexua ■ Sexo

 Emakumea Mujer     Gizona Hombre

Izena edo sozietatearen izena ■ Nombre o razón social

Lehen abizena ■ Primer apellido

Bigarren abizena ■ Segundo apellido

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

Zk. ■ Núm.

Letra

Eskra. ■ Escal.

Solairua ■ Piso

Aldea ■ Mano

Herrialdea ■ País

Probintzia ■ Provincia

Udalerría ■ Municipio

Herria ■ Localidad

P. K. ■ C. P.

Telefonoa ■ Teléfono

Mugikorra ■ Móvil

Faxa ■ Fax

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

**JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA ■ DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN POSTAL <sup>(2)</sup>**

(Ez da bete behar eskatzailearen datuekin bat egiten badute ■ No rellenar si coincide con los datos de la entidad solicitante)

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

Zk. ■ Núm.

Letra

Eskra. ■ Escal.

Solairua ■ Piso

Aldea ■ Mano

Herrialdea ■ País

Probintzia ■ Provincia

Udalerría ■ Municipio

Herria ■ Localidad

P. K. ■ C. P.

**LEGEZKO ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE LEGAL**

(Pertsona juridikoentzat nahitaezkoa da ■ Obligatorio para las personas jurídicas)

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo

 NAN DNI     AIZ NIE     Besteren bat Otro

Identifikazio zk. ■ N° identificativo

Sexua ■ Sexo

 Emakumea Mujer     Gizona Hombre

Izena ■ Nombre

Lehen abizena ■ Primer apellido

Bigarren abizena ■ Segundo apellido

Protokolo zk. ■ N° protocolo

Data ■ Fecha

Notarioa ■ Notario

Telefonoa ■ Teléfono

Mugikorra ■ Móvil

Faxa ■ Fax

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

www.araba.eus

 Jesusen Zerbitzarien kalea 1 zbkia, Baxua - Siervas de Jesús nº 1 – Bajo 01001 Vitoria-Gasteiz.  
 Tel. +34 945 181818 (luz/ext. 52224). Fax +34 945 181951 e-mail: fourbina@araba.eus  
 © Arabako Foru Aldundia - Diputación Foral de Álava, 2010

1

## ESKAERAREN DATUAK ■ DATOS DE LA SOLICITUD

Erakunde eskatzaileak soldatepeko langileak dauzka ■ La entidad solicitante tiene personal asalariado a su cargo

Aurkeztutako aurrekontua (Aurrekontua/ Proiektuaren guztizko kostua)  €  
Presupuesto presentado (Presupuesto/Coste total del proyecto)

Ustezko sarrerak (Jarduerak sortutako sarrerak aurreikusiz gero baino ez bete)  €  
Ingresos previstos (Unicamente cumplimentar si se preveen ingresos generados por la actividad)

Eskatutako zenbatekoa (AFari eskatutako dirulaguntzaren zenbatekoa)  €  
Importe solicitado (Importe de subvención solicitada a la DFA)

Jardueraren / Programaren izena ■ Denominación de la actividad / Programa  Aurrekontua ■ Presupuesto  €

## BANKU DATUAK ■ DATOS BANCARIOS

Bankua ■ Banco	<input type="text"/>
IBAN	SWIFT
<input type="text"/>	<input type="text"/>

## EGITASMOAREN TEKNIKARI ARDURADUNA (Egitasmoaren edukien argibideetarako harremana)

PERSONA TÉCNICA RESPONSABLE DEL PROYECTO (A efectos de contacto para aclaración de contenidos del proyecto)

Sexua ■ Sexo <input type="checkbox"/> Emakumea Mujer	<input type="checkbox"/> Gizona Hombre	Izena ■ Nombre <input type="text"/>	Lehen abizena ■ Primer apellido <input type="text"/>	Bigarren abizena ■ Segundo apellido <input type="text"/>
Telefonoa ■ Teléfono <input type="text"/>	Mugikorra ■ Móvil <input type="text"/>	Faxa ■ Fax <input type="text"/>	Posta elektronikoa ■ Correo electrónico <input type="text"/>	

HONEKIN BATERA AURKEZTUTAKO AGIRIAK Adierazi erantsitako dokumentazioa	DOCUMENTACIÓN QUE SE ADJUNTA: Señalar la documentación que se adjunta
Eskabidearen inprimakia, I. eranskinaren arabera.	Formulario de solicitud, según Anexo I.
Proiektuaren inprimakia, II. eranskinaren arabera.	Formulario del proyecto, según Anexo II.
Egiaztagiria bat, idazkariak emana, erakundearen organo eskudunak gastua baimentzeko eta gastua finantzatzeko hartutako erabakiarena.	Certificación del Acuerdo del órgano competente de la entidad, expedida por la secretaria o secretario de la misma, autorizando la solicitud y financiación del gasto.
Egiaztagiria, udalerrian edo udalerrietan erroldatutako pertsona kopuruarena, 2020ko urtarrilaren 1ekoa. Egiaztagiria honetan pertsonen nazionalitatea eta sexua agertu behar da.	Certificación del número de personas empadronadas en el municipio o municipios, con fecha 1 de enero de 2020, en el que consten su nacionalidad y sexo.
Hala badagokio, kontratazio gastuen aurreikuspenaren azalpen idazkia (eredua II. eranskinan).	Si procede, escrito explicativo de la previsión de gastos de contrataciones (según modelo incluido en Anexo II).
Enpresak, elkarteak edo profesionalak kontratatuz gero, azalpen memoria aurkeztu beharko dute, berdintasunaren inguruan egindako lanak jasoz eta zer enpresa edo erakunderekin lan egin duten eta hura egindako aldiak adieraziz.	En el caso de contratación de empresas, asociaciones, personal profesional, memoria explicativa recogiendo los trabajos realizados en materia de igualdad con indicación de las empresas o entidades con las que ha trabajado y los periodos de realización.
Hala badagokio, ikastaroak, lantegiak edo antzekoak emango dituzten langileek egiaztatu egin beharko dute, gutxienez, 50 orduko prestakuntza edo urtebeteko esperientzia dutela emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan.	Si procede, en caso de personal encargado de la impartición de cursos, talleres o similares, acreditación de al menos 50 horas de formación en materia de igualdad y/o experiencia de un año en el ámbito de la igualdad, de las personas participantes en la actividad.
Hala badagokio, joan-etorrien gastuen aurreikuspenaren azalpen idazkia (eredua II. eranskinan).	Si procede, escrito explicativo de la previsión de gastos de desplazamiento (según modelo incluido en Anexo II).
Baldin eta beste dirulaguntza publiko eta/edo pribatuen eskatu bada, haien egiaztagiria aurkeztu behar dira zenbat diru eskatu den adieraziz.	En el caso de haber solicitado otras subvenciones públicas y/o privadas, documentación acreditativa de las mismas con indicación del importe solicitado.

(Tokia eta data ■ Lugar y fecha)

Eskatzailearen/Ordezkararen sinadura ■ Firma de la persona solicitante/representante

## Oharra (1)

Datu Pertsonalak Babesteko eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko arauak betez, jakinarazten dizugu zure datuak Aldundi honen fitxategietan jasoko direla. Fitxategi horiek Datuak Babesteko Euskal Agentziaren Erregistroan inskribatuta daude eta horren eskumeneko eginkizunak gauzatzeko egoki diren segurtasun neurriak dituzte. Datu horiek ez zaizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, legeak baimendutako kasuetan izan ezik. Datuen kontra egiteko, datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko edo ezerezteko eskubideak egikaritu ahal izango dituzu Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren Bulegorean (Probitria plaza 5, P. K. 01001 Gasteiz, Araba).

## Oharra (2)

Nahi baduzu administrazioak bide telematikoz bidal diezazkizun jakinarazpenak, alta eman beharko duzu Jakinarazpen Telematikoen Zerbitzuan eta, administrazioarekin harremanetan jartzeko, posta elektronikoa bakarraren helbidea (EBH) lortu. Ondoren, zerbitzu horrek gaituta dituen prozeduretan harpidedun egin ahal izango zara. Jakinarazpenak bide telematikoz jasotzeko utzi nahi izanez gero, nahikoa izango duzu dagokion prozeduran baja ematea.

## Oharra

Berdintasunaren arloko araudia betez, honako hau ADIERAZTEN DUT:

LEHENENGOA.- Ez ordezkatzen dudun erakundeak ez erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako kide diren inongo pertsona juridiko edo elkarte ez dela zigortua izan, ez arlo penalean ez administrazioan, sexua dela eta inor baztertzeko, ez eta abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuan eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren xedapen gehigarrietako hamalaugarrenean gizonen eta emakumeen berdintasun arloan xedatutakoak urratzeagatik ere. Legegintzako errege dekretuak Gizarte Ordenaren Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratua onartzen du eta lege organikoak emakume eta gizonen arteko benetako berdintasuna. Hona hemen halako batzuk, besteak beste:

BIGARRENA.- Ez ni ez ordezkatzen dudun erakundea edo erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako kide diren inongo pertsona juridiko edo elkarte ez dela zigortua izan, ez arlo penalean ez administrazioan, sexua dela eta inor baztertzeko, ez eta abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuan eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren xedapen gehigarrietako hamalaugarrenean gizonen eta emakumeen berdintasun arloan xedatutakoak urratzeagatik ere. Legegintzako errege dekretuak Gizarte Ordenaren Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratua onartzen du eta lege organikoak emakume eta gizonen arteko benetako berdintasuna. Hona hemen halako batzuk, besteak beste:

1. Ez bete Langileen Estatutuak edo aplikagarri den hitzarmen kolektiboak berdintasun planen arloan ezarritako betebeharrak.
2. Sexua dela eta, ordainsari, lanaldi, prestakuntza, sustapen eta gainerako lan baldintzetan bereizkeria zuzena edo zeharkakoa dakarten enpresa erabakiak.
3. Langileek enpresan egindako erreklamazioa edo berdintasun eta bereizkeriarik gabeko printzipioa betetzeko eskatzen duten egintza administratibo edo judicial baten aurrean, hain aurkako jarrera dakarten enpresaburuaren erabakiak.
4. Publizitate edo beste zernahi hedatze bidez, baldintzak ezartzea, sexua arrazoi, onerako edo txarrerako baztertzaren bitartez.
5. Sexu-jazarpena, enpresa zuzendaritzaren eskumenen baitako arloetan gertatzen denean, jazarpena norahi dela ere.
6. Sexu-jazarpena, enpresa zuzendaritzaren eskumenen baitako arloetan gertatzen denean, jazarpena norahi dela ere, baldin eta enpresaburuak, jakinaren gainean, ez badu neurrik hartu halakorik ekiditeko.
7. Berdintasun planik ez egitea edo aplikatzea edo, halakorik izan arren, argi eta garbi ez betetzea, baldin eta plan hori egiteak abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 46.bis.2 paragrafoan xedatutakoari erantzuten badiu. Legegintzako dekretu horrek Gizarte Ordenaren Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratua onartzen du.

## Nota (1)

En cumplimiento de la normativa de "Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales", le informamos de que sus datos se incluirán en ficheros de esta Diputación, inscritos en la Agencia Vasca de Protección de Datos y que cuentan con las medidas de seguridad adecuadas para la realización de funciones de su competencia. No serán comunicados a otras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente. Podrá ejercitar los derechos de oposición, acceso, rectificación y cancelación en la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5. C. P. 01001 Vitoria-Gasteiz (Álava).

## Nota (2)

Si quiere que la Administración le remita las notificaciones por vía telemática, deberá darse de alta en el Servicio de Notificaciones Telemáticas y obtener una dirección de correo electrónico única (DEU) con la que comunicarse con la Administración, suscribiéndose, posteriormente, a los procedimientos que tengan habilitado este servicio, podrá dejar de recibir las notificaciones de forma telemática al dar de baja la suscripción al procedimiento correspondiente.

## Nota

En cumplimiento de la normativa en materia de Igualdad DECLARO:

